



“Ipuineko Alizia asko aspertzen zen”

Alicia San Juan | Elektro-sorgina

Chico y Chica bikoteko neska da, gure izarrik distiratsuena elektro-pop estiloan. Espainian milaka zale sutsu dauzka, Alaska denen buru. Ia inoiz ez du argazki normalik egiten uzten.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Iñigo Azkona

Alicia... Zergatik Chico y Chica horren gustuko zaituztete ispiluaren beste aldean, eta horren gutxi ispiluaren alde honetan?

Ideiarik ere ez. Ez dut ispiluen atzeko aldean begiratzen, hain nago-eta lanpeturik...

Zeu lanpeturik! Ez al zara hedonista porrokatua?

Bai eta ez. Nire baitan galtzeko ia denborarik gabe bizi naiz eta horretan ez daukat antzik ipuineko Alizia koittaduekin. Hura asko aspertzen zen eta.

Chico y Chica bikoteak estilo handiz jorratzen ditu azalkeria eta hutsalkeria, baina hemen alde-rantzikoa gertatzen da: sakontasuna jorratzen da batere estilorik gabe!

Zuk duzu kopeta! Azalekoak gara azalekoentzat, baina sakonak gara zerbait gehiago bilatzen ari den jendearentzat.

Madelman ote da zure gizon perfektua?

Ederra bezain bizkorra da eta printzipioak dauzka. Halere, nire gizon perfektua gertuago dago Hugo Silva eta Pacoren gizon guztiengandik.

La Noche Despierta (Radio Euskadi) saioan lan egiten duzu eta entzuleek funtsean heavy kantuak eta Sabina eskatzen dizkizute.

Eta Manowar, Marea, Merche, Motorhead, Karina, Miguel Bosé, Jorge Sepúlveda, Mega-

deth, Su Ta Gar, José Feliciano... Jendeak badaki zer eskatu eta zer behar duen gaueko zein goizaldeko ordu horietan!

Esango al didazu “gure-gurea den zerbait” baina era berean “triste, zimel, zaharkitu edota aspergarri” suertatzen ez zaizuna?

Hemen bezala ez da inon bizi, onerako zein txarrerako.

Zerk eragiten dizu elkartasun gogoa?

Lotsagarri egiten zait elkartasuna erakusgarri bilakatzea. Sobera ditut elkartasunezko sentipenak, faltan daukadana ekinerako hotsasuna da. Ahal dudana egiten dut.

Euskadi ordezkatu nahi zenuke Eurobisioa lehiaketan... ala Mucedades gaindiezina da betiko?

Euskadi ez dago Eurobisioa lehiaketako tonbolan TVE dagoelako. ETB aurkezten den egunean hitz egingo dugu... Nahiz, egia esan, nik zera egin nahi nuke bertan: VIP gunean almendrak jan, kubatak edan eta puntuak ematen dizkiguten bakoitzean garrasika hasi!

Mucedades gaindiezina da beraz?

Mucedadesena egundokoa izan zen. Eta zer diozu Rosari buruz? Itzel egon zen! ■